KATEGORIA

C ERREDAKTOREA (ALBISTEGIAK)

1.- Zer da "zurien balantzea"?

A. Irudi bateko argien eta itzalen arteko oreka
B. Irudi batean agertzen den zuria, koloreetako barretan agertzen den zuriarekin parekatzea.
C. Bideo kameretan egin beharreko egokitze elektronikoa, koloreak egoki erreproduzitu daitezen eta haietako batek besteak menperatu ez ditzan.
D. Dekoratua argiztatzeko mugitzen diren argi zuriak, erabiltzen direnean.

2.- Ekitaldi hauetatik zein izan zen Espainian 3D formatuan emititu zen lehena?

A. 2010eko Eurovision Jaialdia
B. Hegoafrikako Futbol Txapelketaren irekiera ekitaldia
C. Zezenketa bat
D. Espainian ez da oraindik horrelakorik eskaini

3.- Espainiako Konstituzioaren 20. artikuluaren arabera, noiz eman daiteke argitalpen, grabazio edo beste komunikabideren bat bahitzeko agindua?

A. Inoiz ez, 20. artikuluak adierazpen askatasuna babesten duelako
B. Botere exekutiboak oinarrizko eskubideen urraketaren bat igartzen duenean
C. Epaileak hala agintzen duenean soilik
D. Konstituzioaren 20. artikuluak prentsa askatasuna arautzen duen arren, Zigor Kodea da askatasun horren mugak arautzen dituena

4.- Nor da Vocento taldeko presidentea?

A. Jose Manuel Vargas Gómez
B. Diego del Alcazar
C. Iñaki Arechabaleta
D. Jose María Bergareche

5.- Plano bat "onetik aterata" dagoela diogunean, zer esan nahi dugu?

A. Fokoz kanpo dagoela
B. Dekoratuaz kanpoko elementuak ikusten direla.
C. Aurrekontua gainditu duela muga azpitik.
D. Traveling baten bitartez eta abidura handian egindako plano kontrapikatua dela.

6.- Nor da Eric Besson?

A. Fratziako immigrazio ministroa
B. Zine zuzendari bat
C. Kanadako lehen ministroa
D. Informazioaren Gizarterako Europako komisarioa

7.- Zer izen komertzial du Lurrreko Telebista Digitala Espainian Ezarri eta Garatzeko Elkarteak, 2005ean sortu zena?

A. Itzaltze Analogikoa 2010 Elkartea
B. LTDaren Behatokia
C. Red.es
D. Impulsa TDT

8.- Zeintzuk izan ziren Espainian emititzen hasi ziren lehen kate autonomikoak?

A. ETB eta TV3
B. ETB eta Telemadrid
C. Telemadrid eta Canal Sur
D. Canal Sur eta ETB

9.- Julio Ariza komunikazio talde bateko presidentea da. Ze talde?

A. Intereconomía
B. Zeta
C. Vocento
D. Mediapro

10.- Aukera hauen artean, zeinek aipatzen ditu indarrean dauden lege bi?

A. Hirugarren Telebista Katea arautzen duen 46/1983 Legea eta Lurreko Telebista Digitala bultzatzeko Urgentziazko Neurrien 10/2005 Legea.
B. Telebista Pribatua arautzen duen 10/1988 Legea eta Espainiako Irrati eta Telebista Korporazioaren finantziazioari buruzko 8/2009 Legea
C. Espainiako Irrati eta Telebista Korporazioaren finantziazioari buruzko 8/2009 Legea eta Ikus-Entzunezko Komunikazioaren 7/2010 Lege Orokorra
D. Telekomunikazioen Arlorako Urgentziazko Neurrien 7/2009 Legea eta Ikus-Entzunezko Komunikazioaren 7/2010 Lege Orokorra

11.- Adierazpen hauen artean esan zein EZ den agertzen Ikus-Entzunezko Komunikazioaren Lege Orokorrean

A. Komunikazio komertzialek ezin dute ustiatu adingabeek euren guraso, irakasle edo beste pertsonengan ipintzen duten konfidantzazko haremana.
B. Entzumen arazoak dituzten pertsonek eskubidea dute telebista bidezko ikus-entzunezko komunikazioetan saioen %50 azpidatziekin edukitzeko, eta gutxienez astean bi ordu zeinu-hizkuntzara itzulita edukitzeko.
C. Ikusmen-arazoak dituzten pertsonek eskubidea dute gutxienez astean bi orduz telebista bidezko ikus-entzunezko komunikazioa audiodeskribatuta edukitzeko, emanaldi irekietan eta estatu osorako edo erkidegorako direnean.
D. Telebista bidezko ikus-entzunezko komunizio-zerbitzuak eskaintzen dituztenek kode digital bat erabiliko dute beren edukiak, eskabideko zerbitzuak barne, adinaren arabera sailkatu eta gurasoen kontrola ahalbidetzeko.

12.- Zein da lanbide arteko gutxieneko soldata Espainian?

A. 602,40 €
B. 749,50 €
C. 633,30 €
D. 832,00 €

13.- 2010eko uztailaren 1az geroztik, zeintzuk dira Espainian indarrean dauden BEZ motak?

A. BEZ Supermurriztua, %4; BEZ Murriztua, %8; BEZ Orokorra, %18.
B. Urteko lehen sei hilabeetan zeuden BEZ mota berak, baina puntu bateko igoerarekin
C. BEZ Murriztua, %4; BEZ Ertaina %7; BEZ Orokorra, %16.
D. BEZ guztiek bi puntu egin zuten gora, Orokorra izan ezik. Hori aldaketarik gabe geratu da.

14.- Nor da Espainiako Arartekoa?

A. Maria Luisa Casas
B. Enrique Mugica
C. Arturo Canalda
D. María Luisa Cava de Llano

15.- Azken Bakearen Nobel Saria dela eta, esan adierazpen hauetatik zein EZ den zuzena.

A. Espetxean egonda Nobel saria jaso duen bakarra Liu Xiaobo da
B. BBC eta CNN telebista-kanalen emanaldia moztu zuten Beijingen, irabazlearen izena ezagutzera ematen ari zirenean
C. 98ko Gutuna deritzonaren bultzatzaileetariko bat da Liu Xiaobo. Tiananmengo gertakarien harira sorturiko manifestua da. 10.000 lagunek baino gehiagok sinatu zuten testu hura.
D. Durao Barroso Europako Batzordeko presidenteak Liu Xiaobo zoriondu du, baina ez aske utz dezatela aldarrikatu

16.- Alkateak berak berriki ezagutzera eman duenez, zer hirik hartuko du 2012an, Giza Eskubideen aldeko Europako Hiri Sarearen Nazioarteko VIII. Konferentzia?

A. Gernika
B. Durango
C. Donostia
D. Bilbo

17.- Nor da AEBetako Ekialde Hurbilerako ordezkaría?

A. Catherine Ashton
B. George Mitchell
C. Timothy Geithner
D. Petrus Generala

18.- Barack Obamak agindutakoa betetzen bada, noiz utziko dute Irak AEBetako tropek?

A. 2010. urtearen amaieran
B. 2012ko azken sei hilabeteetan
C. 2011ko abenduaren 31an
D. Irakeko tropak bakea bermatzeko gai izatera iristen direnean

19.- Nor da Cecilia Malmström?

A. Europako Batzordeko Barne komisarioa
B. Europako Batzordeko presidenteordea eta Agenda Digitalerako komisarioa
C. Ikerkuntza, Berrikuntza eta Zientzia komisarioa
D. Arrantza eta Itsas Gaietako Europako komisarioa

20.- Zer gehiengo behar da Kongresuan konfidantza mozio bat aurrera atera dadin?

A. Gehiengo absolutua
B. Diputatuen hiru bosten
C. Gehiengo sinplea
D. Diputatuen bi heren

21.- Ze organok koordinatzen ditu autonomia erkidoegoetako finantza jarduerak eta Estatuko Ogasunarenak?

A. Funtzio Publikorako Estatu Idazkaritza
B. Autonomia Erkidegoen Zerga eta Finantza Politikorako Kontseilua
C. Administrazio Publikoko Ministerioa
D. Zergen Administraziorako Estatu-Agentziak

22.- Non dago Qala-i-Now?

A. Iran
B. Pakistan
C. Afganistan
D. Irak

23.- Nor da Alemaniako presidentea?

A. Wolfgang Schäuble
B. Guido Westerwelle
C. Christian Wilhelm Walter Wulff
D. Angela Merkel

24.- Nor da BBVAko kontseilari ordezkaria?

A. Juan Asua
B. Francisco Gonzalez
C. Angel Cano
D. Xabier Iturbe

25.- Ordezkaritza-maila kontutan izanda, zeintzuk dira, handienetik txikienera, Euskadin garrantzi gehien duten lau sindikatuak?

A. CCOO, ELA, UGT eta LAB
B. ELA, LAB, CCOO eta UGT
C. CCOO, ELA, LAB eta UGT
D. ELA, CCOO, LAB eta UGT

26.- Espainiako baloreen merkatuak eta finantza-sistemak, elkarturik daude eragile baten pean. Haren Administrazio Kontseiluko presidentea Antonio Zoido da. Zein da eragile hori?

A. Burtsen Elkartea
B. Espainiako Burtsa eta Merkatuak (BME)
C. Balore Merkatuko Batzorde Nazionala
D. Ibex 35

27.- Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 46.1 artikuluaren arabera, nori dagokio Autonomia Estatutua erreformatzeko ekimena?

A. Eusko Legebiltzarrari, gehiengo sinple baten proposamenez, edo Eusko Jaurlaritzari.
B. Eusko Legebiltzarrari, legebiltzarkideen bosten baten proposamenez; Eusko Jaurlaritzari edo Espainiar Estatuko Gorte Nagusiei.
C. Eusko Legebiltzarrari, gehiengo sinple baten proposamenez, edo Estatuko Gorte Nagusiei, baldin eta lehendik gehiengo absolutuz onartzen baldin bada Kongresuan, eta gehiengo sinplez Senatuan.
D. Eusko Jaurlaritzari, Eusko Legebiltzarri edo Batzar Nagusiei.

28.- Osakidetza - Euskal Osasun Zerbitzua...

A. Eusko Jaurlaritzatik autonomoa den erakunde burujabea da, 1986ean sortu zena.
B. Euskadiko Osasun Antolamendurako Legeak dioenaren arabera, zuzenbide pribatuko erakunde publikoa da, Osasun eta Kontsumo Sailari atxikirik dagoena.
C. Izaera juridiko propioa duen erakundea da eta askatasun osoz ari daiteke aitortu zaion helburua betetzeko. Helburu hori osasun zerbitzuen hornidura da, horretarako bere menpe dituen zerbitzu-erakunde publiko eta pribatuak erabiliz.
D. Zuzenbide publikoko erakundea da, 1986an sortua. Bere helburuak hauek dira, besteak beste: Euskadin osasun zerbitzua hornitzen duten erakundeen funtzionamendua baimendu, arautu eta ikuskatzea.

29.- Nor da Eusko Jaurlaritzako ordezkaria Txile eta Perurako?

A. Elvira Cortajarena Iturrioz
B. Marta Marín Sanchez
C. Ana Maria Urchueguia Asensio
D. Ignacio Valentin Martinez Lopez

30.- Zer alderditan da idazkari nagusia Jose Luis Centella?

A. Bloque Nacionalista Galego
B. UPN
C. Coalición Canaria
D. Espainiako Alderdi Komunista (PCE)

31.- Noiz esan daiteke ofizialki herrialde bat atzeraldian sartu dela?

A. Ondoz ondoko bi hiruhilekotan barne produktu gordinak behera egiten badu
B. Ondoz ondoko bi hilabetetan enpleguak suntsitzen badira
C. Sei hilabeteko epean barne produktu gordina %5 jaisten bada
D. Ondoz ondoko hiru hilabetean KPIak behera egiten badu

32.- Zer erakundetan da presidente Jose Ignacio Hormaeche?

A. Euskalmet
B. EVE
C. Uraren Euskal Agentzia
D. SPRI

33.- Zer kargu betetzen du Anna Terronek Espainiar Gobernuan?

A. Funtzio Publikorako Estatu idazkaria
B. Gizarte Segurantzaren Estatu idazkaria
C. Immigrazio eta Emigraziorako Estatu idazkaria
D. Enplegurako idazkari nagusia

34.- Nor da presidentea Eusko Legebiltzarreko Araudi eta Gobernurako Batzordean?

A. Joana Madrigal
B. Arantza Quiroga
C. Esozi Leturiondo
D. Unai Rementeria

35.- 2009ko ekainaren 26ko 9/2009 Errege Dekretu-Legeak funtsa sortzea agintzen du kreditu erakundeen berregituraketa aurrera eraman ahal izateko, eta horien berezko baliabeak indartzeko. Nola deitzen da funts hori?

A. Finantza-Merkatuak Egonkortzeko Funtsa
B. Banku-Bermerako Funtsa
C. Finantza-Aktiboak Eskuratzeko Funtsa
D. Bankuen Berregituraketa Ordenatua egiteko Funtsa

36.- Zer erakunderen barnean daude Berreraiki eta Sustatzeko Nazioarteko Bankua eta Nazioarteko Sustapen Elkartea?

A. Munduko Bankua
B. Munduko Merkataritza Erakundea
C. Lanaren Nazioarteko Erakundea
D. Nazioarteko Diru Funtsa

37.- Zer herrialdetakoak dira, hurrenez hurren, Europako Batzordeko lehen presidente egonkorra eta Europar Batasuneko Kanpo Harremanetarako goi-arduraduna?

A. Portugal eta Irlanda
B. Belgika eta Erresuma Batua
C. Portugal eta Erresuma Batua
D. Danimarka eta Herbehereak

38.- Nor da Abbas el Fassi?

A. Nuri al Malikiren ondorengoa
B. Arabiar Ligako presidentea
C. Palestinako Aginte Nazionaleko presidentea
D. Marokoko lehen ministroa

39.- Zer bazkidek hartzen dute parte Petronorren?

A. Repsol, Campsa, Gulf oil eta BBVA
B. Repsol eta BBK
C. Repsol batetik, eta bestetik, BBVAk, Banco Guipuzcoanok, BBK-k, Kutxak eta Vital Kutxak osatzen duten partzuergoa
D. Repsol, Rio Tinto eta BBK

40.- Espainian, zer organok egiten die barne-kontrola Estatuaren Sektore Publikoaren kudeaketa ekonomiko-finantzieroei, eta era berean, kontabilitate publikoa zuzentzen eta kudeatzen ditu?

A. Ogasunaren Idazkaritza Nagusia
B. Estatuko Administrazioaren Kontu Hartzailetza Nagusia (IGAE)
C. Diru Kontuen Auzitegia
D. Espainiako Industria Partaidetzarako Estatuko Sozietatea (SEPI)

41.- Non ditu Gerdau Sidenor taldeak altzairua ekoizteko erabiltzen dituen lantegiak?

A. Elgeta, Torrelavega eta Gasteiz
B. Basauri, Gasteiz eta Reinosa
C. Villalba, Gasteiz eta Tutera
D. Logroño, Basauri eta Miranda de Ebro

42.- Nor da Euskadiko Kutxako zuzendari nagusia?

A. Iñaki Gorroño
B. Julio Gallastegi
C. Elias Atutxa
D. Jose Maria Aldekoa

43.- Donostia 2016an Europako Kultur Hiriburua izateko hautagaitza kudeatzen ari den bulegoa nork zuzentzen du?

A. Eva Salaberria
B. Odon Elorza
C. Blanca Urgell
D. Maria Jesus Aranburu

44.- Nork idatzi eta zuzendu du Bernardo Atxagaren "Bi anai" eleberriaren filma?

A. Montxo Armendariz
B. Imanol Rayo
C. Julio Medem
D. Miguel Albadalejo

45.- 2000. urtean NBEk Milurtekoaren Garapenerako Helburuak finkatu zituen. Zer urtetan amaitzen da helburu horiek betetzeko epea?

A. 2012
B. 2015
C. 2018
D. 2020

46.- Zer museotan ikusi ahal izango da Jesus Mari Lazkano margolari bergararraren erakusketa urritik urtarrilera?

A. Chillida-Leku
B. Artium
C. Bilboko Arte Ederren Museoa
D. San Telmo museoa

47.- Nor da Euskadiko Idazleen Elkartea-Asociación de Escritores Vascos delakoaren presidentea?

A. Eli Tolaretxipi
B. Mila Beldarrain
C. Pedro Ugarte eta Julia Otxoa
D. Luisa Etxenike

48.- Zein da Edurne Pasabanek igo duen hamalaugarren eta azken "zortzimilakoa"?

A. Annapurna
B. Kangchenjunga
C. Shisha Pangma
D. Cho Oyu

49.- Non jaio zen Fernando Amorebieta Athleticeko jokalaria?

A. Medellín, Kolonbia
B. Cantaura, Venezuela
C. Celaya, Mexiko
D. Tikal, Guatemala

50.- Zer erakundetan da idazkari nagusi eta bozeramaile Juan Antonio Martínez Camino?

A. Terrorismoaren Biktimen Elkartea, AVT
B. Espainiako Futbolarien Elkartea, AFE
C. Espainiako Gotzainen Batzarra, CEE
D. Olinpiar Batzorde Nazionala, COE

51.- Nork idatzi zuen "Gernikako Arbola" abestia?

A. Kepa Junkera
B. Juan Arzamendi Emparanza
C. Sarasola
D. Iparragirre

52.- Ze zinegile gaztek zuzendu zuen "Pagafantas" filma?

A. Luis Angel Ramírez
B. Nacho Vigalondo
C. Antonio Eceiza
D. Borja Cobeaga

53.- Ze herritan jaio zen Ainhoa Arteta sopranoa?

A. Zarautz
B. Tolosa
C. Bergara
D. Durango

54.- Julio Medem zinegilearen zer filmetan agertzen da Mikel Laboaren "Baga Biga Higa" abestia?

A. Lurra
B. Lucía y el sexo
C. Euskal pilota, larrua harriaren contra
D. Behiak

55.- Non jaiotzen da Baias ibaia?

A. Aralar mendigunean
B. Aizkorri mendigunean
C. Irati mendigunean
D. Gorbeia mendigunean

56.- Nork idatzi zuen "Zazpi Etxe Frantzian" eleberria?

A. Bernardo Atxaga
B. Xabier Mendiguren Elizegi
C. Koldo Izagirre
D. Anjel Lertxundi

57.- Nongoa da "Su Ta Gar" taldea?

A. Bilbo
B. Barakaldo
C. Eibar
D. Gasteiz

58.- Non dago Chillida-Leku?

A. Getaria
B. Hernani
C. Arrasate
D. Azkoitia

59.- Nor izan zen Koldo Mitxelena?

A. Letra gizon bat
B. Hizkuntzalari bat
C. Musikari bat
D. Dantzari bat

60.- Zer da Eider Rodriguez?

A. Artista
B. Aktorea
C. Idazlea
D. Disenatzailea

ERRESERBAKO GALDERAK

61.- Zer dute komunean Teresa Cunillerak, Ana Pastorrek, Jorge Fernandezek eta Jordi Janek?

A. Izan berri den Europako Atletitsmo Txapelketa amaitutakoan, Espainiako atletismo selekzioa utzi dute guztiek.
B. Palma Arena kasuan inputaturik daude
C. Kongresuko presidenteordeak dira laurak
D. Auzitegi Goreneko epaileak dira

62.- Zer enpresak biltzen eta kudeatzen du Espainian sortzen den zabor erradioaktiboa?

A. CIEMAT
B. EON
C. Energia Nuklearraren Batzorde Nazionala
D. ENRESA

63.- Zein da PSOEren Zuzendaritzak kongresutik kongresura duen erabakigunerik gorenena?

A. Kongresu Federala
B. Idazkaritza Nagusia
C. Batzorde Federala
D. Zuzendaritza Batzorde Federala

64.- Zer konpainiatan da presidente Ignacio Sanchez Galan?

A. Endesa
B. Unión Fenosa
C. Iberdrola
D. Repsol YPF

65.- "2010- 2013ko EITBko Estrategia Plana" martxoaren 15ean sinatu zuen Alberto Suriok. Bere helburu garrantzitsuenetako bat euskarazko kanalen birdiseinua da. Dokumentu horren arabera, ondorengo aukeretatatik, zein da martxan jarriko EZ den proiektu bat?

A. Euskarazko eskaintza birdiseinatu eta zatikatzea, kanal eta xede-audientzien arabera: etb1, orotariko kanala; etb3, haur eta gazte arloan espezializatua, ordu- tarteen arabera; etb4, kate eleaniztuna, kirolean espezializatua (horretarako, bideragarritasun-txosten bat prestatu behar da aurretik)
B. EITBn audientzia gehien duten hedabideetatik (etb2tik eta Radio Euskaditik) herritarrak euskarazko kanaletara gonbidatzea.
C. Lau euskara arlo sortzea, sozietate bakoitzeko bat: Euskal Telebista, Eusko Irratia, Radio Vitoria eta EITBNET.
D. *Bikain* proiektuari heltzea 2022/12 epealdian.